

BAIMENAK ESKATZEKO ETA KOMUNIKAZIOAK EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerek osasun-zentro bati edo prebentzio-zerbitzu osoari eragin diezaiokete; beraz, kasu bakoitzean aukera horien artean aukeratu beharko da.

BAIMENAK

1- OSASUN ZENTROA (osasun-zentroan klikatuz egingo da)

- **Berria:**

- Instalazioen planoak.
- Lagatako edo alokatutako lokalen kasuan: instalazioen erabilera eskusiboko kontratua, lokalaren jabeak eta prebentzio-zerbitzuaren arduradunak sinatua.
- Artxibo-ekipoak eta informazioa zaintzeko sistemak deskribatzen dituen dokumentua.
- Osasun-instalazioan eta lantokietan, osasun-profesionalak dauden kasuetan, hala behar duten langileen larrialdiei eta emergentziei erantzuteko jarduketa-prozedura deskribatzen duen dokumentua, baita erabiliko duten medikazioa, materiala eta ekipoa ere.
- Erradiodiagnostikoaren itun eguneratua.
- Laborategiko itun eguneratua.
- Hondakin sanitarioak biltzeko itun eguneratua.

- **Berritzea:**

- Aldaketarik egin ez bada, dokumentu hauek aurkeztuko dira:
 - Lagatako edo alokatutako lokalen kasuan: instalazioen erabilera eskusiboko kontratu eguneratua, lokalaren jabeak eta prebentzio-zerbitzuaren arduradunak sinatua.
 - Erradiodiagnostikoko itun eguneratua.
 - Laborategiko itun eguneratua.
 - Hondakin sanitarioak biltzeko itun eguneratua.
- Gainerako dokumentuetan aldaketaren bat gertatu bada, eskaera egiteko unean indarrean dauden baldintzak jasotzen dituztenak entregatuko dira.

- **Etetea:**

Osasun-zentroko historia kliniko-laboralak lekualdatzeko prozedura.

2- PRESTAZIO MEDIKO-FARMAZEUTIKOA (prebentzio-zerbitzuan klikatuz egingo da)

Prebentzio-zerbitzu propio edo mankomunatueterako bakarrik

- **Prestazio mediko-farmazeutikoa**

Prestazio farmazeutikoaren alta-eskaera.

Klikatu inprimakiaren eredia deskargatzeko:

[Osasun-langileek prebentzio-zerbitzu propio edo mankomunatu batean farmazia-prestazioa onartzeko adierazpena](#)

- **Prestazio mediko-farmazeutikoa etetea**

Ez da beharrezkoa dokumentuak eranstea.

3- ALDAKETAK HIGIEZINAREN EGITURAN EDO BANAKETAN (osasun-zentroan klikatuz egingo da)

Osasun-zentroaren eteteko baimena eskatuko da eta osasun-zentro berri bat instalatzeko eta jardunean jartzeko baimena eskatuko da, aurreko puntuetan adierazitako urratsei jarraituz.

4- PREBENTZIO-ZERBITZUAREN OSASUN-ZENTROEN TITULARTASUNA ALDATZEA (prebentzio-zerbitzuan klikatuz egingo da)

- Prebentzio-zerbitzuaren titulartasuna aldatzeko, aldaketa hau osasun-agintaritzari eskatu aurretik lan-agintaritzan akreditazioa eskatu beharko da.
- Prozesuan zehar, behar den dokumentazioa eskatuko da kasu bakoitzean.

5- XURGAPEN BIDEZKO FUSIOA (prebentzio-zerbitzuan klikatuz egingo da)

- Osasun-agintaritzari prebentzio-zerbitzuaren osasun-zentroen titulartasuna aldatzeko eskatu aurretik, lan-agintaritzan akreditazioa eskatu beharko da.
- Prozesuan zehar, behar den dokumentazioa eskatuko da kasu bakoitzean.

6- PREBENTZIO-ZERBITZU BIREN BAT-EGITEA (prebentzio-zerbitzuan klikatuz egingo da)

- Osasun-agintaritzari prebentzio-zerbitzuaren osasun-zentroen titulartasuna aldatzeko eskatu aurretik, lan-agintaritzan akreditazioa eskatu beharko da.
- Prozesuan zehar, behar den dokumentazioa eskatuko da kasu bakoitzean.

KOMUNIKAZIOAK

1- LANGILEEN DATUAK (prebentzio-zerbitzuan klik eginez egingo da)

- **Altak:**

- Espezialistaren titulazioa: kopia autentikoa edo Unibertsitate Tituludun Ofizialen Erregistro Nazionalean (RNTUO) inskribatutako unibertsitate-titulu ofizialak kontsultatzeko baimena.

Aldez aurretik Osalani aurkeztu ez bazaio bakarrik erantsi beharko da.

- Lan-kontratuaren kopia.
- Bateriaezintasunik ez dagoela eta jarduerarako dedikazio eskusiboa duela adierazten duen adierazpen pertsonala.

Klikatu inprimakiaren eredia deskargatzeko:

[Bateriaezintasunik ez dagoela eta jarduerarako dedikazio eskusiboa duela adierazten duen adierazpen pertsonala.](#)

- **Bajak:**

Ez da beharrezkoa dokumentuak eranstea.

- **Ordutegia edo dedikazio aldiaren aldaketak:**

- Lan-kontratuan aldaketa badakarte: lan-kontratuaren kopia.
- Lan-kontratuan aldaketarik ez badakarte: ez da beharrezkoa agiriak eranstea.

2- DATU OROKORRAK (prebentzio-zerbitzuan klik eginez egingo da)

- Ez da beharrezkoa dokumentuak eranstea.
- Behar izanez gero, prozesuan zehar dagokion dokumentazioa eskatu ahal izango da.

3- LANTOKIEN ALDAKETA (prebentzio-zerbitzuan klikatuz egingo da)

Ez da beharrezkoa dokumentuak eranstea.

4- JARDUERA SANITARIOAK AZPIKONTRATATZEKO AKORDIOA (prebentzio-zerbitzuan klikatuz egingo da)

- Prebentzio-zerbitzu propio edo mankomunatuak osasun-jarduerak azpikontratatzeko beharra sorrazten duten lantokien sakabanatze geografikoaren edo urruntasunaren arrazoiei buruzko azalpen-memoria.
- Ezagutza bereziak edo konplexutasun handiko instalazioak behar dituzten osasun-jarduera espezifikokoak, hala nola teknika diagnostiko espezializatu osagarri jakin batzuk, azpikontratatzeko beharrari buruzko azalpen-memoria.

Arrazoi bat edo biak izan daitezke.

- Kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin osasun-jarduerak azpikontratatzeko ituna, azpikontratatzen diren jarduerak zehaztuta.
- Azpikontratazio-akordioan sartutako lantokien zerrenda, horietako bakoitzeko langilekopurua adierazita.
- Prebentzio-zerbitzuen artean informazioa eskualdatzeari buruzko txosten deskribatzailea, kontuan hartuta azpikontrataturako kanpoko prebentzio-zerbitzuak osasun-zaintza espezifikoko programaren garapenean parte hartzeko betebeharra duela, prebentzio-zerbitzu nagusiaren jarraibideei jarraituz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7.3 artikuluan eta 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Azpikontratazio-akordioan sartutako langileak artatuko dituzten osasun-zentroen zerrenda, eta azpikontrataturako osasun-jarduerak egingo dituzten kanpoko prebentzio-zerbitzuko osasun-langileak zehaztuz.
- Langileen ordezkariari egindako kontsultaren egiaztatzea.

5.- BESTE ALDAKETA BATZUK

Aldaketei dagozkien agiriak erantsiko dira.